



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015EKO UZTAILAREN 10EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka

Etorri diren zinegotziak:
Hanot Karrera Amondarain
Maria Iciar Jauregui Huarte
Victoria Rodriguez Feloaga
Maria Cristina Goya Amiama
Eleuterio Sanchez Garcia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko uztailaren 10ean udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak eta laurden direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2015KO MAIATZAREN 14KO AKTAREN ONARPENA

2015ko maiatzaren 14an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015ko maiatzaren 14an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- DAMASORO IZENENKO LUR SAILAREN BANANTZE LIZENTZIA

Nekane Lazkano Prieto eta Aitor Otaegi Larrartek terreno baten banantzea eskatu dute. Terrenoak 1.649,74 m² ditu eta Damasoro finkakoa da. Terrenoaren salerosketa egin nahi dute eta banandutako lursaila beren titularitateko txerri nekazaritza ustiaketara lotu.

Horretarako jatorrizko finkaren eta sortuko liratekeen zehaztapen memoria aurkeztu dute, eskriturak eta lursail nagusi eta bananduaren planoak Igone Ortuzar Garcia ingeniari teknikoak sinatuta.

Espedientearen aurrekariak arkitektoaren 2015eko urtarrilaren 27ko txostenean jaso dira. Horren arabera tokiko gobernu batzordeak 2015eko otsailaren 10ean eginiko bilkuran alde informatu zuen banantzeko kontsulta, eta bete beharreko baldintza, betebeharrak eta aurkeztu beharreko agiriak jaso zituen.

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ematea Nekane Lazkano Prieto eta Aitor Otaegi Larrartek eskaturiko banantze lizentzia Damasoro Lursailerako beti ere txerri nekazaritza, ustiaketari berehala lotzeko baldintza betetzen badute (*ustiaketa zk. 200.42.0.010.058*)

Banandutako lursailak eta terrenoak, honako katastro erref. dituztenak: 01-250, 0,6438 Ha eta 01-287, 0,4760 Ha dituen nahiz txerritegia banaezintasun izaerarekin lotuko dira ustiaketari jabegoen erregistroan.

Banantze lizentzia emateko baldintza etengarria izango da: batetik eskatzaileak eskrituraren kopia aurkeztea eta bestetik, berau jabegoaren erregistroan aurkeztu izanaren ziurtagiria aurkeztea (honela lizentzia inskripzioa egin ahal izango baita). Ziurtagiri hori aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da lizentzia hau onartzen dela jakinarazten denetik kontatzen hasita. Baldintza hori bete ezean eskatu den banantzea ez da egintzat joko.

DAMASORO FINKA NAGUSIAREN ZEHAZTAPENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako Izaskun auzoan kokatuta dagoen finka, 5.353 m² dituena, erregistro inskripzioan jasotakoaren arabera. Iparraldetik Orietapea izeneko herri bidea du, Hegoaldean Egoagirre etxearen lursaila, ekialdean Aldani baserriaren lursaila eta Mendebaldean Bizkardo Arteché baserriari loturiko Aranari finka.

BANANDU ONDORENGO FINKEN ZEHAZTAPENA.

DAMASORO A FINKA

Ibarrako Izaskun auzoan kokatuta dagoen finka, 1.649,74 m² dituena, Igone Ortuzar ingeniari agronomoaren planoaren arabera, Iparraldetik Orietapea izeneko herri bidea du, Hegoaldean Egoagirre etxearen lursaila, Ekialdean Aldani baserriaren lursaila eta Mendebaldean Damasoro B finkaren gainerakoa.

DAMASORO B FINKA

Ibarrako Izaskun auzoan kokatuta dagoen finka, 3.703,26 m² dituena, Igone Ortuzar ingeniari agronomoaren planoaren arabera, Iparraldetik Orietapea izeneko herri bidea du, Hegoaldean Egoagirre etxearen lursaila, Ekialdean Damasoro A banandutako lursaila eta Mendebaldean Bizkardo Arteché baserriari loturiko Aranari finka.

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuei eta Damasoro lursailaren egungo jabe den Vicente Larrarte Urdanpilleta jn.ari jakinaraztea.

3.- VODAFONE 85875 TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENAREN KANONAREN BERRIKUSPENA

2015eko ekainaren 23an, Vodafone enpresaren izenean Sara Maria Lopez-Pelaez andreak email bat bidaltzen dio Ibarrako Udalari. Bertan, Apattako lursailean 2009 urtetik ezarita dagoen telefonia mugikorreko antenaren kanona 5.500 eurotik 3.000 eurora ordainduko dutela adierazten da. Bestalde kanona garestia dela argudiatuz agian beste telefonia mugikorreko enpresa batekin hitzarmen bat sinatuko dutela adierazten du.

Udal Arkitekta, Aparejadora eta Idazkariak 2009an (ekainak 30ean osaturiko Gobernu Batzordean) sinatu zen emakidaren ezaugarriak aldatu ez direnez kanonaren berrikuspena egitea ez dagoela oinarriturik irizten dute. Batetik 6,80 m²ko azalera okupatzen jarraitzen da eta 1,70 metro bider 4 metroko dimentsioa izaten jarraitzen du.

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA.- Ez onartzea Vodafonek egiten duen kanon kopuruaren aldaketa 2009an sinatu zen emakidaren ezaugarriak ez direla aldatu kontutan hartuz. Ondorioz 85875 zenbakidun Vodafoneko antenaren kanona 5.500 eurotan mantentzen da 2009ko emakida deusezten ez den bitartean.

BIGARRENA:- Jakinaraztea erabaki hau Vodafone enpresari eta bide batez adieraztea emakida deuseztatzeko arrazoiak 2009an sinatu zen dokumentuaren 6.en klausulan jasoak dituela. Zerbitzua kentzen badute, egun dagoen antena kendu beharko dute.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri eman Kontuhartzaitzari

4.- KULTUR TAILERREN KONTRATAZIOAREN LUZAPENA

2013ko ekainaren 26an egindako Gobernu Batzarrak, Ibarra Kultur tailerrak zerbitzua kontratatzeke plegu administratibo eta teknikoak onartu zituen.

Kontratua prozedura ireki bidez egin da, 2013ko uztailaren 3an (126zkidun) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena jarraiki.

Esleipena 324/2013 dekretu bidez egin da (2013ko irailaren 16koa) TEILAZPI KULTUR TAILERRAK S.L ren alde. Exekuzio epea bi ikasturtetako izango da eta beste bi ikasturtez luza daiteke gehienez ezingo delarik 4 urte baino gehiago kontratatu.

Kontratua 2015eko ekainaren 30ean bukatua da, eta luzatu daiteke ikasturte (urriatik ekainera) bateko beste bi alditan,

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Luzatu TEILAZPI KULTUR TAILERRAK S.L enpresarekin Ibarra Udalak duen kultur tailerren kontratua 2015eko urriaren 1etik 2016ko ekainaren 30era

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman TEILAZPI KULTUR TAILERRAK S.L-ri eta Kontuhartzaitza sailari

5.- GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI LANGUNTZAILE LANPOSTUA BETETZEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2010eko uztailaren 23ko 145/2010 Alkate-dekretu bidez Nerea Aldazabali behin behinean Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen zereginak eman zitzaikion “zerbitzu-eginkizunak” deritzon moduan.

Legearen arabera zerbitzu-eginkizunak ezin dute 2 urte baino gehiago iraun. Kasu honetan ia bost urte pasa dira eta lanpostu hori behin betiko prozesu batez betetzea komeni da.

Lanpostu hau betetzeko merituen lehiaketa bidez egingo da, baina merituez gain baita azterketa bat egin beharko da. Lehiaketa mugatua izango da, hau da, udaleko administrari laguntzaileei zuzendutakoa.

2015eko maiatzaren 19an buruturiko Langileen Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Martxan jartzea merituen lehiaketa mugatua bidez, hau da, udaleko administrari laguntzaileei zuzendadutakoa, Gizarte Zerbitzuen administrari laguntzailearen lanpostua betetzeko prozesua.

BIGARRENA: Oinarriak prestatzea Gizarte Zerbitzuetako lanpostua merituen lehiaketa bidez betetzeko.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta erdi direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.